





# BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEAREN 2013KO JARDUEREN TXOSTENA




## 2013ko jardueren txostena




GIZA ESKUBIDEAK



OROIMEN HISTORIKOA



BAKEA



BESTELAKO EKINTZAK



Erakusketak



Hitzaldiak



Oroimen egunak



Kanpo jarduerak



Biktimei aitortza  
adieraztea



Proiekzioak



Argitalpenak




Topaketak, bilerak  
eta tailerrak



Prestakuntza,  
sentsibilizazioa eta  
balioetan oinarritutako  
hezkuntza



Elkarreentzako diru laguntzak



# GIZA ESKUBIDEAK

Sentsibilizazio eta  
kontzientziazioa

# GIZA ESKUBIDEEN XI. ZINEMALDIA

# GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA.

## Sustraiak etorkizunean



**2013ko apirilaren 19tik 26ra**

Giza Eskubideen Zinemaldiak Donostiako Bigarren Mendeurrenaren espirituari jarraitu dio aurten, hiritarren eta herrien hobetzeko nahiak ezagutzera emateko.

Donostiako Udalak, -Giza Eskubideen Bulegoaren bidez-, eta Donostia Kulturak kalitatezko zinemaz eta jarduera paraleloz beteriko ekimena antolatzen dute 2003 urteaz geroztik.

Guztiak helburu bakarra du: gizateriaren erronka eta gabezia handiei buruzko ikuspegi kritikoa, solidarioa, aldarrikatzailea eta plurala eskaintzea, eta eragitea, bereziki, krisian murgilduta dagoen mundu honetan.

Besteak beste, honako hauek osatu zuten programazioa: mundu osoko 23 film luze eta 21 film laburrek (kasu batzuetan estreinaldiak), erakusketak, musika, joko kooperatiboak, tailerrak, mintegiak... 15.000 ikuslek baino gehiagok parte hartu zuten.

4 sari banatu ziren. Publikoaren Saria Film Luze Onenari, Jorge Gil Munarrizen *El método Arrieta* (Euskadi), Gazteriaren Saria Film Labur Onenari Emmanuelle Nicoten *Rae*, Amnesty International Saria, Barbara Milleren *Forbidden Voices* eta Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria Patricio Guzman dokumental egileari.



# GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



*The runner-en protagonista*



*Emanaldia*



*Goran Paskaljevic*



*Jokoak*

# GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



*Erakusketa: Suspensión eta beste erreportaje batzuk. Fnac*



*Musika Parkean. Aieteko parkean*



# MINTEGIA ETA TAILERRAK



*Argazkiton tailerra. Etxebizitza eskubidearen alde Stop Desahucios Gipuzkoa*



*Amal Ramsis, "Mi generación" bideo tailerra*



*Patricio Guzman, zinema dokumentala. Mintegia*



# SARIAK



*Ikusleen Saria. El Metodo Arrieta. Jorge Gil*



*Amnesty International Saria. Forbidden voices. Barbara Muller*



*Gazte epaimahaia*



*Patricio Guzman. Zinemaldiaren Saria*

# JOKO KOOPERATIBOIA



2013ko apirilaren 18a eta 19a

## Donostiarrok harriz harri

Donostiarrok harriz harri Bigarren Mendeurrenaren harira ekoiztu den lankidetzako joko da. Donostiako ondare historiko eta kulturalarekin harreman zuzena dauka haur eta gazteei zuzendutako joko honek.

Donostiako Bigarren Mendeurrenaren Bulego Teknikoak antolatua, Koma eta Kometa enpresek asmatu eta garatutako lana da.

Jokoaren bidez, parte hartzaileek bizi eta esperimendatuko dute hiria berreraikitzeke donostiarrek lankidetzan egin zuten lana, 1813an hiria erre eta suntsitu ondoren.





# JOKO KOOPERATIBOA



# SAIO BEREZIA GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

**2013ko abenduaren 10a**

## **Balta Txuria-Balta Berdea. SOS Arrazakeria**

Abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean, SOS Arrazakeriaren 'Balta Txuria', Balta Berdea. Urumearen zurrumurrua dokumentala aurkeztu zen Donostiako Antzoki Zaharrean.

Dokumentalak, Europako Ekialdeko ijito jatorriko pertsonekin Astigarragan eraiki den kokagunearen berri ematen du, eta beraiekin lantzen ari den esku-hartze plana azaltzen du. Anaitze Agirre eta Eneko Andonegi dira egileak.

Aurkezpenak Giza Eskubideen Zinemaldiaren, Donostia Kulturaren eta Kultura Aniztasunaren Departamentuaren laguntza jaso zuen. Ondoren, mahai ingurua bat egin zen, Andoni Gartzia, Astigarragako alkatea; SOS Arrazakeriako Agustín Unzurrunzaga; Adriana Villalón, antropologoa; eta Maripiana Bartus kokaguneko bizilagunarekin.



*Solasaldia. Balta Txuria-Balta Berdea*




BAKEAREN ETA GIZA  
ESKUBIDEEN ALDEKO  
IPUINAK ETA  
MARGOLANAK

# GIZA ESKUBIDEAK. IX. HAUR ETA GAZTEEN MARGOLANAK

**2013ko apirilaren 19tik 26ra**

6 eta 16 urte bitarteko 3.013 neska-mutil eta gaztek eginiko marrazkien erakusketa. 1813an Donostia erre, suntsitu eta ondorengo berreraikitzearen inguruan hausnartu eta euren ideiak eta inpresioak irudikatu dituzte.

Sariak, Eskolarteko-Koldo Mitxelena Literatur Sariarekin batera banatu ziren, Victoria Eugenia antzokian, maiatzaren 12an.



# GIZA ESKUBIDEAK. IX. HAUR ETA GAZTEEN MARGOLANAK



*Sari banaketa*

# NAZIOARTEKO EGUNAK



# NAZIOARTEKO EGUNAK

**2013ko apirilaren 8a**

## Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna

Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna zela eta, Donostiako alkate Juan Karlos Izagirrek harrera egin zien ijito elkarteen ordezkariari, udal alderdi guztietako ordezkariak lagun. Udaletxeko balkoian ere, ijitoen bandera jarri zen ikusgai.

Alkateak aginte-makila trukatu zuen Manuel Vizagrarekin, Ijito Herriaren Sustapena eta Partaidetzarako Euskal Kontseiluko presidenteordearekin.

Berdintasuneko, Migrazioko eta Gazteriako zinegotzi Naiara Sampedrok Donostiako Udaleko erakunde-adierazpena irakurri zuen, Ijito Herriaren aldekoa. Adierazpen hau aho batez onartu zuten Udaleko talde politiko guztiek.

Ekitaldian, Kamelamos Adiquerar, Sim Romi, Kale dor Kayiko, Asgiba, Sueti Calli eta Flamenco de Norte elkarteetako ordezkariak parte hartu zuten.



*Harrera ijitoen elkarteei*

# NAZIOARTEKO EGUNAK

2013ko ekainaren 28a

## Sexu Askapenerako Nazioarteko eguna

Donostiako Udalak, LGTBO kolektiboen eskubideak defendatzen dituzten elkarteekin batera, Sexu Askapenerako Nazioarteko eguna ospatu zuen, hainbat ekintzaren bidez. Aniztasun sexuala kalera leloa aukeratu zuen aurtengoan EHGM Euskal Herriko Gay-Les Askapenerako mugimenduak, identitate eta harreman eredu ez normatiboen ikusgaitasunaren aldeko keinua egiteko.

Euskal Herriko Bilgune Feministak, berriz, Hetero arauarekin Hautsi! hartu zuen aldarri. Kolektiboak salatu duenez, "hetero araua patriarkatuaren ezarpenaren zati bat da eta hori hausteak bazterkeria eta zigor soziala dakartza". Aldi berean, mobilizatorako dei egin zuen Sexu Askapenerako Gazte Mugimenduak ere, eta gazteak animatu zituen "euren eskualdeetan asanblada autonomoak eratzera eta lan egitera, bakoitzaren nahiak eta beharrak proiektu indarberritu batean islatuak izan daitezen".

Donostiako Udaletxearen aurrean, udal alderdi politiko guztiek onartutako erakunde-adierazpena irakurri zuten ordezkariek. Dbus tranbia-konpainiak ortzadar bandera autobusetan jarrita eman zien hirian egingo diren ekitaldi guztiei babesa.



Kartela

# NAZIOARTEKO EGUNAK

**2013ko ekainaren 27a**

## **Askatasun adierazpena “Identitatea definitu eta harremanak aukeratzeko”**

Ekainaren 28an gay, lesbiana, transexual eta bisexualen nazioarteko eguna izanik, Donostiako Udaleko talde politikoeek adierazpen instituzionala onartu zuen. Testua Udaletxe aurrean irakurri zen.

Adierazpena:

1. Udalbatza honek, erakunde adierazpen honen bidez, eraso homofobo eta lesbofobo guztien aurrean irmoki gure kontrako jarrera adierazten du. Baita pertsona Transexualen aurkako erasoen aurrean ere.
2. Udalbatza honek, erakunde adierazpen honen bidez, pertsona oroaren askatasun sexuala aldarrikatzen du, beren identitatea definitzeko eta bere harremanak aukeratzeko.



*Adierazpenaren irakurketa*

# NAZIOARTEKO EGUNAK

**2013ko azaroaren 20a**

## Haurren Egun Unibertsala

Donostiako Udalak azaroaren 20a, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren Protokoloaren onarpenaren eguna, hurrei zuzendutako hainbat jarduerekin ospatu zituen.

Liburutegietako "Ipuinaren orduan" baloreen transmisioan eta parte hartzean oinarritutako gaiak hautatu ziren; Haurtxokoetan hainbat jarduera burutu ziren haurren eskubideen inguruan; Gaztelekuetan, UNICEFen "Nahiak eta beharrizanak" jokoaz gozatu ahal izan zuten.

Bestalde, "Babel: munduko ipuinak, munduko kulturak" erakusketaren inguruan bisita gidatuak antolatu ziren.

Antolatzaileak: Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoa, Donostia Kultura eta Unicef.



*"Babel: munduko ipuinak, munduko kulturak" erakusketa*



# NAZIOARTEKO EGUNAK

**2013ko abenduaren 1a**

## **HIESaren Kontrako Nazioarteko Eguna**

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen atalaren bitartez, eta Acasgi, EHGAM, Gehitu eta Harri Beltza elkarteek hainbat ekintza antolatu zituzten HIESaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira

Abenduaren 1ean kontzentrazioa egin zen, biktimen omenez, Kalkutako Teresa Plazan, HIESaren memorialaren aurrean hain zuzen. Gainera, Kurasaalaren argi guztiak piztu ziren begizta gorria irudikatuz. Udaletxeko fatxadan, udal ekipamenduetan eta hainbat garraio publikotan ere lazo gorriaren kartelak jarri ziren.

Gaitzaren inguruan sentibilizatzen segitzeko beharra nabarmendu zuen Naiara Sampedrok Berdintasuneko, Migrazioko, Kultur Aniztasuneko, Hezkuntza, Kulturako eta Gazteriako zinegotzi ordezkariak birusa duten pertsonen eskubideak babesteko: *“Estigmatizatuta egon den gaixotasuna baita, eta aurreiritziak ez dira guztiz ahitu. HIESa isilean pairatutako pandemia ankerra izan da eta da”*. Bide horretan gogor ari diren elkarten lana ere eskertu zuen zinegotziak



# NAZIOARTEKO EGUNAK

**2013ko abenduaren 10a**

## **Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna**

Giza Eskubideen Nazioarteko egunean, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak dituen 30 artikulua irakurri zituzten, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean, Donostian giza eskubideen alde lanean ari diren honako 17 elkarte hauek: Asociación de Víctimas del Genocidio; Lokarri; Demagun Hausnarketarako Taldea, Brigadas Internacionales de paz; Harrera Elkarte Asistentziala; Hamaika Bide elkarte; Euskal Memoria Fundazioa; Asociación Llano de Naranjas/Laranjaz Beteta elkarte; Gune Irekiak Gizarte Ikerkuntza elkarte; SOS Racismo; Asociación Socio-cultural Banda Bat; Jatorkin; Agifugi; Ikertze; FUDEN/SATSE; Intered; Gipuzkoako GGKEen Koordinakundea. Bertan izan ez bazen ere, argazkiak bidali zituen Covite elkarteak ere, artikuluen irakurketarekin batera erakutsi zen argazki muntaian parte hartuz. Horiekin batera, Udaleko Bildu eta EAJko ordezkariak izan ziren.

Donostiako Udalaren Giza Eskubideen Batzordeak antolatu zuen ekimena.



ERAKUSKETAK

# ERAKUSKETAK

**2013ko martxo eta apirila**

## “Allikayren bidaia” erakusketa

Prosalus-ek eta Gurutze Gorriak antolatutako osasunaren giza eskubideei buruzko “Allikayren bidaia” erakusketa Aieteko kultur etxean ikusgai egon zen, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen eta Donostia Kulturaren laguntzarekin.

Erakusketa hau munduko hainbat lekutan zehar egindako bidaia batean oinarritzen da. Honen helburua osasuna babestu eta sustatzea da. Horretarako, osasunaren determinatzaileak, pertsonak jaio, bizi, lan egin, eta zahartzen diren baldintzetatik sortzen direnak, ezagutzearen garrantzia azaldu zen; izan ere bizi kalitatean eragin handia dute, eta osasuntsu bizitzea, ala ez, posible egiten dute.

Prosalus eta Espainiako Gurutzen Gorriaren garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio proiektu bat da: “Osasunaren giza eskubidea ulertzea: osasunaren determinante sozialen garrantzia” izenekoa.



*“Allikayren bidaia” erakusketa Aieten*



# ERAKUSKETA

**2013ko apirilaren 17tik ekainaren 8ra**


**200 urte geroago**

Azken bi mende hauetako hiriaren bilakabide politiko, kultural, sozialari buruz Ceinpro-ko ikasleek egindako hausnarketa grafikoa. 200 urte Donostia eraikitzen, hartarako oinarriak ahalegin kolektiboa eta berreraikitze eta hobetzeko espiritua direla.

200 ikasle eta 18 irakasleen partaidetzarekin. Apirilaren 17tik ekainaren 8ra, Ernest Lluch kultur etxean.



# ERAKUSKETA



200 urte geroago erakusketaren aurkezpena eta argazkiak

# ERAKUSKETA

**Ekainaren 29tik irailaren 29ra**

## **Décor: a Conquest by Marcel Broodthaers**

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak Décor: a Conquest by Marcel Broodthaers lana eta Waterlooko gudua ikusgai egon zen. Arte lan hau Londreseko ICAn aurkeztu zen 1975ean lehen aldiz. Artista honen lana Bake-itunaren lehen kapituluaren "1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea" barnean kokatzen da, 8.000 lagunek baino gehiagok bisitatu zuten erakusketa.

"Bake-Itunak" Donostia 2016 Kultur Hiruburutzarentzat proiektua da. Komisarioa Pedro G. Romero izan da.

Honez, gain, Aieteko Gandhi aretoan, *Un voyage a Waterloo*, Marcel Broodthaers-en pelikularen etengabeko proiektzioa eskaini zen.







## Decor erakusketa. Bisita erakusketaren komisarioarekin



Erakusketaren komisarioak, Pedro G, Romerok, udal teknikariei eta arduradunei bisita eskaini zien.



# ERAKUSKETA


2013ko irailaren 21etik azaroaren 27ra

## Gatazkak eraldatutako eguneroko bizitzako objektuak


Ipar Irlandako gatazkatan, komunikatzeko, aldarrikatzeko edo tresna politiko bezala beren ohizko funtzioa aldatu duten objektuen irudiak, eta hainbat kontakizun biltzen dituen erakusketa izan zen ikusgai Aiete kultur etxean.

Gune abertzaleetan abisuetarako komunikazio tresna gisa erabiltzen zuten zabor-edukiontzi baten estalkia, segurtasun indarrek erabilitako balen kontrako paper-euskailua edota "Ulsterrek EZETZ dio", Unionisten lema ezaguna, inprimatuta duen pospolo-kaxa dira, besteak beste, erakusketa honetarako mailegatu dituzten historia duten objektuen argazkiak.

Antolatzailea. Healing Through Remenbering  
Laguntzaileak: Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea, Gernikako Bakearen Museoa eta Donostia Kultura



*Gatazkak eraldatutako eguneroko bizitzako objektuak. Erakusketa*



# ERAKUSKETA

**Abenduaren 10etik otsailaren 23ra**

## **René Cassin: bakea, eskubidea**

Nazioarteko Giza Eskubideen eguna zela-eta, abenduaren 10ean, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez, Donostiako Udalak Nobel Saria irabazi duen euskaldun bakarraren inguruko erakusketa aurkeztu zuen: René Cassin. Bakea, eskubidea. Baionar hori Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren egileetariko bat izan zen 1948an.

Baionako Udalarekin eta Euskal Museoarekin elkarlanean eginiko erakusketa da. René Cassinek bizi izandako gerra arteko testuinguru historikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala aditzera emateko helburua du. Gako garrantzitsua izan zen giza eskubideen lorpenean eta bakearen defentsan. Gainera, Cassin Bakearen eta Giza Eskubideen etxeko "patroia" da.

Euskalduna eta unibertsala den (René Cassin) itzal handiko gizon honen bidez, eta oraina iraganarekin erlazionatuz, erakusketaren helburua XXI. mendeko giza eskubideen inguruko hausnarketa piztea da. Era horretan, kazetaritza ereduaren baten bitartez, Adierazpen Unibertsalaren 30 eskubideak jasotzen dira, egungo testuinguruan pil-pilean ditugun 10 gairekin loturik.



# ERAKUSKETA



HITZALDIAK



# HITZALDIA/BISITALDIA

2013ko ekainaren 11

## Heriotza zigorraren aurkako ekintzaileei harrera eta hitzaldia

Estatu Batuetan heriotza zigorraren aurkako bi ekintzaileei, Ray Kroner heriotza korridoretik bizirik irten zenari, eta Cheryl Nailler, bere emazteari, harrera egin zieten Udaletxean Donostia Udaleko ordezkariak.

Bertan, beraien esperientziaz eta Witness to Innocence erakundearen egiten ari diren lanaz hitz egin zuten, Nazioarteko Amnistia taldeak gonbidatuta.

Ray Kroner-ek munduko zigor iraingarriena (heriotza zigorra indargabetzearen garrantzia azpimarratu zuen.



*Heriotza zigorraren aurkako aktibistei harrera Udaletxean*

ELKARTEENTZAKO  
DIRU LAGUNTZAK

# DIRU LAGUNTZAK


## Bakea, Giza Eskubideak eta Kultur Aniztasuna

Giza Eskubideen atalak 60.000 € banatu zituen irabazteko asmorik gabeko 32 elkarteren artean, bakearen, giza eskubideen eta kultur aniztasunaren aldeko proiektuak garatzeko.

Diru laguntza horiek honako proiektu mota hauek bultzatzen dituzten elkarteei laguntzea dute xede:

1. Bakea, elkarbizitza eta giza eskubideak aditzera eman, eraiki, sustatu eta defendatzeko edota oroimen historikoa berreskuratzeko proiektu eta ekintzak.
2. Giza eskubideen aldeko eta haien gainean sentibilizatzeko eta kultur aniztasunarekiko gizabidea bideratzeko proiektu eta ekintzak.





OROIMEN HISTORIKOA



# OMENALDIA

**2013ko apirilaren 4a**

## **Begoña Urrozen familiari Urrezko Domina**

Juan Karlos Izagirre alkateak Begoña Urrozen familiari Urrezko Domina eman zion Donostiako Udaletxean, ekitaldi pribatu batean. Begoña Urroz haurra bonba baten leherketaren ondorioz hilik suertatu zen 1960ean, Donostian.

Domina ematea 2012ko osoko bilkuraren akordio bat betez egin zen.

Juan Karlos Izagirre alkatearen iritziz, ekitaldi hau *"biktima guztiak aintzat hartzeko eta ordaina emateko beste aurrerapauso bat da"*.

Ekitaldian, udaleko talde politiko guztien ordezkariak parte hartu zuten



*Juan Karlos Izagirre alkatea, Urrezko Domina ematen Begoña Urrozen amari*

# ARGITALPENAK

## Argitalpena: 1936-1940 Donostiako udal langile errepresaliatuei buruz

1936-1940 bitarteko urteetan, Donostiako 1.623 udal funtzionario ikertu edo baztertu zituen Frankoren errepresioak, Aranzadi Zientzia Elkartek egindako ikerketan jasotzen denaren arabera. Ikerketa hau Donostiako Udalaren enkarguz burutu da.

Bildutako datuen arabera, 765 funtzionario kendu zituzten kargutik behin betiko.

Gainerako langileek, edo bere lanpostua berreskuratu zuten, edo nahitaez erretiratu egin behar izan zuten. Beste batzuek aldi baterako etenaldi zigorrak jasan behar izan zituzten.

Musikari bat, garbitzaile bat eta gauzain bat ez ezik, Errepublikara garaiko bi zinegotzi sozialista ere exekutatu zituzten frankistek.

Aranzadiren ikerketak bederatzi udal funtzionarioen fusilatzea ere jasotzen du, "matxinatuen alde zeudelakoan", Errepublikara garaiko 2 alkate eskuindar ere exekutatu zituzten, Frente Popularraren aldekoak zirelakoan.



Argitalpena

# OMENALDIA

**2013ko apirilaren 5a**

## **Gerra garaian errepresaliatutako udal langileei omenaldia**

Donostiako Udalak gerran zehar errepresaliatutako udal langileei omenaldia egin zien Udalbatza aretoan. Guztira 1623 langile dira erregimen frankistak ezarritako neurri latzak zuzenean pairatu zituztenak: bai espediente irekitzea, bai espetxe-zigorra, bai heriotza-zigorra.

Guztira 11 pertsona fusilatu zituzten beren ideengatik.

Juan Karlos Izagirre alkatea buru zela, udaleko talde politiko guztiek hartu zuten parte, eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren zuzendari Marina Bidasorok eta Aranzadi Zientzia Elkartearen hainbat kidek ere. Azken elkarte horrek osatu du biktimen errolda, Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Udaleko ordezkariak diploma bana entregatu zien langile horien guztien senideei. Udalbatza aretoa jendez gainezka zegoen.



Gerra garaian errepresaliatutako Udal langileen senitartekoak

# OROIMEN HISTORIKOAREN BATZORDEA

**2013ko otsailaren 15a eta uztailaren 5a**

## **Oroimen Historikoaren Batzordea. Bilerak**

Lehengo urtean burututako bileraren jarraipen bezala, 2013an beste bi bilera egin ziren, otsailean eta uztailan, Aieteko Jauregiko, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean, oroimen historiakoarekin lotutako entitateekin eta Donostiako Udaleko zenbait ordezkari politikoeekin.

Bilkura hauetan gobernuaren helburua da, parte hartzen duten elkarte eta bertaratutakoei oroimen historikoaren inguruan aurrera eramango dituen jarduera eta ekimenei buruzko azalpenak eta informazioak ematea. Modu honetan, feedbacka sortarazi nahi da gai honekin erlazionatutako taldeen iradokizunak eta iritziak jasotzeko asmoz.

Era berean, elkarte parte hartzaileek ere, bilkuretan bertaratutakoaren artean azaltzen dituzte bideratzen ari diren jarduerak eta honela beraien arteko ideien eta esperientzietan oinarrituriko elkartasun espazio bat sortzen dute, elkarri laguntzeko.



# AITORPENA

**2013ko uztailaren 16a**

## **Diktadurapean udal funtzionarioei ezarritako espedienteak bertan bera uztea**

Gobernu Batzordeak, Donostiako alkateak eskatuta, gerra zibilean eta diktadura frankistapean errepresaliatuak izan ziren Donostiako udal funtzionarioen espedienteak bertan behera utzi zituen. Izan ere, Udalak konpromiso morala erakutsi nahi izan die arrazoi politikoengatik eta ideologikoengatik zigortuak eta jazarpena jasan zuten udal langile guztiei. Horiek horrela, ondorengo erabakia adostu zen Tokiko Gobernuan:

- a) Berriaz adieraztea ez dutela balio lanpostua uzteagatik eta garbiketagatik 1936ko irailetik 1940ra izapideturiko espedienteek, baita ezarritako zigor guztiak zuzengabeak direla.
- b) Adieraztea eta jendaurrean aldarrikatzea espedienteek eragindako pertsona guztiei esanbidezko errekonozimendu eta begirunea zor dizkiegula.

Datuen arabera, gerra zibilaren eta frankismoaren diktadurapean 1.623 uzte eta garbiketa espediente ezarri zitzaizkien udal langileei.



*Erabakiaren berri ematen, udal sindikatuetakako ordezkarekin*



# ARGITALPENA

2013ko azaroaren 13a

## “Sasiain Brau Donostiako alkate errepublikanoa: historiaren ahanztura” liburuaren argitalpenaren aurkezpena

Xabier Urmeneta eta Iñaki Markez, Fernando Sasiain Brau, II. Errepublikaren garaian gure hiriko alkate izan zenaren pertsonaiaz nahiz testuinguru historikoaz aritu ziren beraien liburuaren aurkezpenean.

Sasiain alkatea 30. hamarkadan hiria gobernatzeko Donostiako herriak hautatutako alkatea izan zen. Hala eta guztiz ere kargutik kendu egin zuten herritarren erabaki kolektiboa urratuz. Halere, politikari karismadun eta dinamikoa izateagatik nabarmendu zen.

Donostiako Udalak, oroimen historikoaren berreskuratzean konpromisoa agertu nahi du argitaratze honen bidez, eta altxamendu frankistaren eta gerra zibilaren bitartean, nahiz diktadura frankistapean Sasiain bezalako pertsonen, edota giza eskubideak ukatuak izan zitzaizkienei, aitortza egitea.

Hortaz, orain arte ezezaguna edota ahaztua izan den Fernando Sasiain Brau merezi duen errekonozimendua egiteko garaia iritsi dela iritzi dio egun Donostiako alkatea den Izagirre



*Paco Etxeberria, Xabier Urmeneta, Juan Karlos Izagirre, Marina Bidasoro, Idioa Estornes eta Iñaki Markez, aurkezpenean*



# IDEIEN LEHIAKETA

**2013ko irailaren 13tik abenduaren 13ra**

**Ideien lehiaketa: Altxaldi frankistan eta ondorengo urteetan exekutatutako biktimen omenez**

Giza Eskubideen atalak ideien lehiaketa bat jarri zuen martxan altxamendu frankistaren bitartean eta ondorengo urteetan exekutatu zituzten 400 pertsona inguru oroitzeko.

Epaimahaia honako hauek osatu zuten: Donostiako alkateak, udalaren hainbat sailtako teknikariek eta Oroimen Historikoko Foroko bi ordezkariak.

Hiru lan onenek sariak jaso zituzten: lehenengoak, 2.000 €; bigarrenak, 1.000 € eta hirugarrenak 500 €.

Alkateak azpimarratu zuenez “ezinbestekoa da garai hartan sufritutako itzalak argitara eramatea, eta, horretarako, Egia, Justizia eta Aitortzarako bidean pausuak ematen jarraitzea”.



*Lehiaketaren kartela*

# SARIAK. IDEIEN LEHIAKETA

2013 abenduaren 13a

## Sariak. Altxaldi frankistan eta ondorengo urteetan exekutatutako biktimen omenez ideien lehiaketa

Amaia Mateosek eta Tomas Villanuevak frankismo garaian Donostian fusilatutako 400 pertsona inguru omendu eta oroitzeko iragarritako lehiaketaren lehengo saria jaso zuten, "Dual" lanarekin. Bigarren saria Manuel Jimenez eta Ibon Rosalenzat -Estela lanarekin- izan zen, eta hirugarrena, -Arrastoak lanarekin- Garbiñe Pedroso eta Inhar Agirrezabalarentzat.

Lanaren kalitate estetiko nahiz sinbolikoa eta eskulturak proposatzen duen materialen jolasa (korten altzairua eta polikarbonatoa) nabarmendu zituen epaimahaiak bere aukeraketan, baita lan bakarrean 400 fusilatuak eta fusilatu zituzten kokaguneak islatu izana ere.

Lehiaketara aurkeztu ziren 16 lanak ikusteko aukera egongo da otsailaren 5etik 23ra Aieteko kultur etxean.



1. saria. Dual. Eskultura. Amaia Mateos eta Tomás Villanueva


# SARIAK. IDEIEN LEHIAKETA



2. Sarria. "Estela". Manuel Jimenez eta Ibon Rosales



3. Sarria. "Arrastoak". Garbiñe Pedroso eta Inhar Agirrezabala



BAKEA



# ARGITALPENEA

**2013ko maiatzaren 10a**

## **Bakerako giza eskubideari buruzko liburuaren aurkezpena**

Espainiako Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbiderako Elkarteko presidentek, Carlos Villan Duranek, The International Observatory liburuaren aurkeztu zuen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean. Liburu hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean egin da.

AEDIDHEk hainbat argitalpenetan oinarritzen du Bakerako giza eskubidearen nazioarteko kodifikazioaren aldeko Munduko Kanpaina, eta liburu hau hirugarrena da. Gizarte zibilak sustatzen duen nazioarteko legegintzako lege ekimena da. Espero denez, 2014ko abenduan Nazio Batuen Erakundearen Batzar Orokorrak Bakerako Giza Eskubidearen Adierazpen Unibertsala onartuko du.

Carlos Villán Durán irakasleak eta Carmelo Faleh Pérezek zuzendu dute liburuaren irakasketa, irakasleek egin dituzte zuzendari lanak



*Marina Bidasoro, Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Oroimen historikoaren zuzendaria, eta Carlos Villan*

# ARGITALPENA

**2013ko maiatzaren 20a**

## **Argitalpena: “Memoriaren Oasia” Carlos M. Beristain. Sahara**

Carlos M. Beristainek, mediku eta psikologian dotoreak, “Memoriaren Oasia” argitalpena aurkeztu zuen. Liburua Euskal Fondoaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin argitaratu da.

Lan honek 1975. Urtetik, eta gaur egun arte, Saharar Herriak jasandako giza eskubideen urraketak aztertzen ditu, 261 biktimen istorioak jasotzen ditu. Orain arte giza eskubideei buruz Mendebaldeko Saharan egindako lanik zabalena eta sakonena da. Martín Beristainekin batera, liburuaren beste protagonista batzuk beren lekukotasun eta bizipenak agertu zituzten.



*Carlos Martin Beristain*

# JARDUNALDIA

**2013ko maiatzaren 20a eta 21a**

## **Jardunaldiak: Giza Eskubideak Mendebaldeko Saharan. Euskal Fondoa**

Euskal Herriko nazioarteko udal lankidetzak eta Euskal Fondoak 25 urteurrena 2013an betetzen zela eta, Saharari buruzko jardunaldi monografiko hau antolatu zuten, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera.

Ekitaldi hau Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean burutu zen –Euskal Fondoaren egoitza-. Mendebaleko Sahararen egoera eta sahararrak nola bizi diren okupatuta dauden bere lurraldeetan aztertzea izan zen bere helburua.

Hainbat gai jorratu ziren. Besteak beste, historia, nazioarteko legedia, MINURSOren papera, emakumearen egoera eta epaiketak.

Brahim Dahanek, ASVDH elkarteko presidentea, Javier García Rabosok, WSRW elkarteko kidea, Fatma el Mehdik, ESNren idazkari nagusiak, Laila Lilik, giza eskubideen ekintzaileak, Juan Soroetak, EHU/UPVeko irakasleak eta Hassana Aaliak, biziarteko kartzela zigorrera zigortua, beste batzuen artean, parte hartu zuten.



*Saharako ordezkariak, Aieten*

# HITZALDIA

**2013ko maiatzaren 25a**

## **Alkatea, Giza Eskubideen Mundu Foroko klausuran**

Donostiako alkateak, *Nantesen (Frantzia) maiatzaren 22tik 25era egin zen Giza Eskubideen Mundu Foroko klausura ekitaldi ofizialean parte hartu zuen. Bertan eman zuen hitzaldiaren izenburua honakoa izen zen: Giza eskubideen errespetua bake zibila lortzeko baldintza gisa Europan: Donostiako adibidea.*

*Alkatea Euskal Herriak bizi duen bake prozesuaz aritu zen, eta, bereziki, Aieteko Nazioarteko Konferentziaz: "Euskal Herriak aro politiko berri bat bizi du, aro itxaropentsua, eta uste dugu oso lagungarria dela beste herri, nazio eta estatuekin une honetara eraman gaituen prozesuaz aritzea, eta bakea iraunkorra izan dadin beste prozesu batzuetaz ikastea"*

*Donostiako Udala Gizarte Inklusiboa, Demokrazia Partehartzailea eta Giza Eskubideen Batzordeko kidea da, Hiri eta Tokiko Gobernu Batuen sarearen baitan, eta erakunde hau da foroaren antolatzaile nagusienetako bat.*



*Juan Karlos Izagirre, alkatea, Nantesen*

# HITZALDIA

**2013ko ekainaren 26a**

## **Siriari buruzko mahai ingurua**

“Hiru aldeetako testigantza” izenpean, Siriari buruzko hitzaldia eskaini zuten Mikel Aiestaranek, Andoni Lubakik eta Karlos Zurutuzak, Siriako gerraren lekuko eta kazetariak.

Lekukotasunez gain, herrialdeko gatazkaren hiru aldeetara gerturatu ahal izateko bidea ere eskaini ziguten hiru kazetariak. Mikel Aiestaranek Damaskotik jarraitu du gerra, diktadorea babesten dutenen alboan; Andoni Lubaki Alepotik aritu da lanean, arabiar matxinoekin, eta bertan bahitu zuten; Karlos Zurutuza, berriz, kurduekin izan da, herrialdearen ipar-ekialdean.

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailak antolatu zuen hitzaldia, Donostia Kulturaren laguntzarekin.



*Andoni Lubaki, Karlos Zurutuza eta Mikel Aiestaran, Naroa Iturri moderatzailearekin*



# HITZALDIA

## 2013ko uztailaren 4a

### Alkatearen parte hartzea, Mayors for Peace mundu mailako konferentzian, Hiroshiman

Juan Karlos Izagirre alkateak Mayors For Peace elkartearen 8. Kongresu Orokorrean parte hartu zuen, Japoniako Hiroshima hiri esanguratsuan.

Entzulez betetako aretoan, Donostiako alkateak bakearen aldeko aldarria egin zuen, eta Donostia bakearen erreferente dela azpimarratu zuen, "batez ere orain bi urte Aieteko Nazioarteko Konferentzia hartu genuenetik".

Gune honetan, alkateak "Tokiko Eremuetatik Bakea Eraikitzen" nazioarteko konferentzia Donostian antolatzekeo egitasmoaren berri eman zuen.

Izagirrek orain 68 urteko eraso atomikoaren ondorioz hil zirenen aldeko omenaldian hartu zuen parte .

Hainbat herrialdeetako alkaterekin harremanak egin zituen alkateak. Besteak beste, Hiroshimako alkate Matsui Kazumirekin eta Nagasakiko alkate Taue Tomihisarekin elkartu da. Hurrenez hurren, Mayors For Peace-ko presidente eta presidenteordea dira.



*Juan Karlos Izagirre, Mayors For Peace elkartearen 8. Kongresu Orokorrean*



*Juan Karlos Izagirre alkatea Mayor for Peace hainbat ordezkariekin*



# NAZIOARTEKO KONFERENTZIA BAKEA TOKIAN-TOKIAN ERAIKITZEN

**2013ko urriaren 10a eta 11**

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak "Bakea tokian-tokian eraikitzen" alkatetzak eta Mayor for Peace-ko antolatutako Nazioarteko konferentziaren egoitzan izan zen,.

Aieten bildu ziren ospe handiko pertsonen artean, honako hauek zeuden: Juan Karlos Izagirre, Donostiako alkatea; Martin Garitano, Gipuzkoako diputatu nagusia; Monika Hernando, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Biktimen zuzendaria; Máirtín Ó Muilleoir, Belfasteko alkatea; eta Carlos Villán Durán, AEDIDHeko presidentea.

Hiroshimako alkatea eta Mayors for Peace-ko presidentek, Matsui Kazumik, berriz, bideo baten bidez agurra egin zuen.

Konferentzia Kursaalako Kongresu Jauregian jarraitu zen. Besteak beste, honako hauek hartu zuten parte: David Newton (Conciliation Resources) Katrin Planta (Berghof Foundation), Pat Colgan (UE Peace Program). Paul Rios (Lokarri), Alfredo Etxeberria (Elgoibarko alkatea), Julen Mendoza (Oreretako alkatea), Jose Antonio Santano (Irungo alkatea), Abedallah Saleh (Banizid al Sharkiako alkatea, Palestina), Salek Baba (Sahara) eta Osman Baydemir, Diyarbakirkoko alkatea, Kurdistan.

## 1. saioa



*Juan Karlos Izagirre, inaugurazioan*

# NAZIOARTEKO KONFERENTZIA BAKEA TOKIAN-TOKIAN

## 2. saioa. Urriak 11

Konferentziaren bigarren egunean honako hauek izan ziren, besteak beste, parte hartzaileak. Argentina: Horacio Javier Ríos, Kultura eta Hezkuntza idazkaria, Rosarioko Udala; El Salvador: Pedrina Rivera, Suchitotoko alkatea; Belfasteko udala: Caoimhín Mac Giolla Mhín, Béal Feirste-ko Comhairleor, zinegotzia; Nikaragua: Enrique José Armas, Managuako alkateordea; Milja Radovic, Edinburgh Peace Initiative, CITSEE (Jugoslavia Ohiaren Ondorengo Herrialdeetan Herritarrak Europartzea); Sinam Mohamad, People's Council for Western Kurdistaneko lehendakaria Mendebaldeko Kurdistan (Siria); David Bieter, Boiseko alkatea (AEB); Serhat Temel, Batmaneko alkatea (Kurdistan); Stefania Amato, Nazioarteko Harremanen Atala, Alkatearen Kabinetea, Milango Udala (Italia); Milja Radovic, Edinburgh Peace Initiative, CITSEE (Jugoslavia Ohiaren Ondorengo Herrialdeetan Herritarrak Europartzea) proiektuko ikerketa-kidea. Edinburgoko Zuzenbide Fakultatea, eta Jordi Martí i Galbis, Lehendakaritza eta Lurralde zinegotzia, Bartzelonako Udala.

Agur hitzetan, Donostiako alkateak konferentziak eman dizkion hiru ikaspen edo ideia nabarmendu zituen: batetik, munduan gatazka asko eta askotarikoak egonik, garrantzitsua dela halakoak bizi izan dituzten herriek beren esperientziak ezagutaraztea, bestetik, pazientzia ezinbestekoa dela bake prozesuan aurrera egiteko eta, azkenik, Julen Mendoza, Alfredo Etxeberria eta Jose Ignacio Santanok izandako mahai inguruan oso kontuan hartu beharreko ideiak eman zituztela, adierazi zuen.



*Konferentzia*





# URTEURRENA

**2013ko ekainaren 15a**

## **Euskal Fondoaren 25. urteurrena**

Euskal Fondoaren 25. urteurrena 2013an betetzen zela eta, Euskal Herriko nazioarteko udal-lankidetzak eta Euskal Fondoak Saharari buruzko jardunaldi monografikoa antolatu zuten, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera.

Ekitaldia Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean egin zen, Euskal Fondoaren egoitzan. Helburua izan zen Mendebaleko Sahararen egoera aztertzea, eta azaltzea sahararrak nola bizi diren okupatuta dauden beren lurraldeetan.

Hainbat gai jorratu ziren: besteak beste, historia, nazioarteko legedia, MINURSOren papera, emakumearen egoera eta epaiketak.

Beste batzuen artean, honako hauek izan ziren parte-hartzaileak: Brahim Dahan, ASVDH elkarteko presidentea; Javier Garcia Raboso, WSRW elkarteko kidea; Fatma el Mehdi, ESNren idazkari nagusia; Laila Lili, giza eskubideen ekintzailea; Juan Soroeta, EHU/UPVko irakaslea; eta Hassana Aalia, biziarteko kartzela zigorrera kondenatua.



*Euskal Fondoako kideak, Aieten*

# OMENALDIA


**Biktima guztien aldeko ekimena**

**2013ko azaroaren 9a**



Juan Karlos Izagirre alkateak biktima guztien aldeko ekimenean parte zuen Donostiako udaleko Bilduko, EAJ-PNVko eta PSE-PSOEkoin hainbat zinegotzirekin batera.

Alderdi Ederren dagoen "Oroimena" monolitoaren aurrean bildu ziren udal ordezkariak, Giza Eskubideen Batzordean hartutako erabakiari erantzunez.



BESTELAKO  
EKINTZAK, BAKEAREN  
ETXEAN

# BILERA

**2013ko otsailaren 20a eta 21a**

## **Ararteko: RAINBOWHAS proiektuaren bilera**

Ararteko erakundeak koordinatu duen RAINBOWHAS "Eskubideak aliantzen bitartez: eskolan eta etxean berritzen eta sareak sortzen" izeneko proiektuaren lehen lan bilera egin zen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Europar mailako egitasmo honen helburua hezkuntza arloan hurrek eta nerabeek aniztasun sexuala izateko dituzten eskubideak sustatzea eta hobetzen laguntzea da.



*Iñigo Lamarka, Arartekoa, eta Rainbowhas kideak*

# IKASTAROA

2013ko otsailaren 26a eta 27a

## Lehen Hezkuntzako irakasleentzako formazio ikastaroa

Ikertze elkarteak Arte eta Dialogo formazio ikastaroa eskaini zuen, "Arte eta dialogoarekin elkarbizitzan lan egiteko baliabideak Lehen Hezkuntzarako Akzio Tutoriala: bizikidetza batera eraikiz" programaren bidez.

Lehen hezkuntzako irakasleentzako ikastaroa da, artea eta dialogoaren bidez geletan bizikidetza hobetzeko baliabideak erakusteko helburuarekin sortua. Programa EHUren Nortasuna, Ebaluzio eta Tratamendu Psikologikoen Departamentutik ebaluatu da, eta emaitzek agerian utzi dute garapen sozioemozionalean eta sortzailean duen eragina.



*Ikertzek antolatutako tailerra Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean*



# PRENTSAURREKOA

**2013ko martxoaren 12a**

## **Etxeraten prentsaurrekoa**

Etxerat preso senideen elkartearen kideak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean bildu ziren preso egoera eta kartzelan duten bizi baldintzak salatzeko.

Bereziki bi preso, Ibon Fernandez Iradi eta Ventura Tomén, egoera nabarmendu zuten, gaixotasun larriak diagnostikatu dizkiete eta.



*Etxerat-en prentsaurrekoa, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean*

# HITZALDIA

**2013ko martxoaren 14a**

## **Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea. Hitzaldia**

Giza Eskubideei buruzko Vienako Munduko Biltzarraren hogeigarren urteurrena dela eta, UNESCO Etxeak "Derecho Internacional de los Derechos humanos: su cumplimiento por los estados y aplicabilidad para los ciudadanos" hitzaldia antolatu zuen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Bertan, gaien adituak diren pertsona hauek bildu ziren: Emilio Ginés, Torturaren Prebentziorako Nazio Batuetako Elkartearen Azpibatzordeko eta Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeko kidea, Mikel Mancisidor Nazio Batuetako Elkartearen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeko aditu independentea eta UNESCO Etxea - Euskal Herriko UNESCO Zentroaren zuzendaria, eta Silvia Escobar, Giza Eskubideetarako Enbaxadore Berezia.



*Hitzaldia, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean*

# ASANBLADA

**2013ko apirilaren 20a**

## **Lokarriren Batzarra**

Lokarri, Akordioaren eta Kontsultaren aldeko herritarren Sareak, Batzar Orokorra egin zuen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Datozen hilabeteetan gidatuko duten jardueren lehentasunak definitzeko asmoz bildu ziren Lokarriko kideak.



*Lokarriko batzar orokorra, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean*

# HITZALDIA

**2013ko apirilaren 20a**

## **Armeniako Genozidioa, Hitzaldia**

Armeniako Genozidioaren inguruan hitzaldia eskaini zen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Espainiako Batzorde Armeniarrak antolatua izan zen, Nicolás de Miguel historialariaren kolaborazioarekin.

Hitzaldian, genozidioaren XX. Mendeko gertaerak azaldu zituzten, eta bere ondorio geopolitikoak.



*Armeniako genozidioa, hitzaldia*

# AURKEZPENA

**2013ko maiatzaren 27a**

## **Bake prozesua: Foro Sozialaren gomendioak**

Foro Soziala osatzen duten entitate, elkarte, hiritar eta adituek bake prozesua bultzatzeko 12 gomendio aurkeztu zituen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean. Gomendioak Foro Sozialak Bilbon eta Iruñean eginiko jardunaldietan jasotako ekarpenetan oinarrituta daude, eta adostasunen garrantzia azpimarratzen dituzte, bake prozesua bultzatzeko.

Dokumentuan, bake prozesua sustatzeko "adostasunak" lortzea gomendatzen ditu "desarme eta presoan itzultzerako, Giza Eskubideen bermerako eta iraganari aurre eginez elkarbizitza eraikitzeko"

Paul Riosek, Lokarriko koordinatzaileak, Peio Dufau-k, Bake Bidea-ko kideak eta Andy Carlek Conciliation Resources-en zuzendariak aurkeztu zituzten gomendioak, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean eskainitako prentsaurrekoan.

Hemendik aurrera, alderdi eta eragile guztien esku utziko dituzte gomendioak, ahal duten neurrian beren ekarpenak egin eta aurrera eraman ditzaten.



*Foro Sozialaren gomendioen aurkezpena*



# AURKEZPENA

2013ko ekainaren 13a

## Memoria Historikoa eta Bizikidetzazabaltzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plana

Plana, Martin Garitano diputatu nagusiak, eta Marina Bidasoro Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren zuzendariak aurkeztu zuten, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean. Planaren helburuak honako hauek dira:

- Giza eskubideen babesa eta sustapena hobetzea elkarbizitza normalizatu baten alde, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizartearen eta administrazioaren prestakuntza eta sentsibilizazioaren bitartez.
- Euskal Herrian gatazkaren inguruan gertatutako indarkeria ezberdinen ondorioak, hots, giza-eskubideen urraketak, minak, sufrimenduak eta gizarte zatiketak gainditzeko lan egitea, eta oroimenaren berreskurapenari ekitea, biktima guztiei egia, justizia eta erreparazio eskubideak bermatuz normalizazio politikoa, berradiskidetzea eta gizarte baketsua lortzera eraman gaitzan.
- Gizarte eragileak, erakundeekin batera, bidelagun izatea normalizazio politikoa, berradiskidetzea eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako bakea lortzeko, eta horretarako proposamenak aurkeztea.



*Martin Garitano, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia eta Marina Bidasoro, Giza Eskubideen eta Oroimen historikoaren zuzendaria*

# ARGITALPENA

2013ko azaroaren 27a

## **Euskal Memoria Fundazioaren liburua: “Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza jazarpenaren memoria**

Euskal Memoria Fundazioak hizkuntza zapalkuntzaren gaiari heldu dio oraingoan, Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza jazarpenaren memoria. David Anaut egileak euskaren memoria dokumentala eta memoria bizia oinarri hartu ditu.

Anauten hitzetan, “Euskararen aurkako zapalkuntza eta jazarpena da landu nahi izan dugun ardatzetako bat, liburuko ardatz nagusia; eta euskararen defentsa egin duen eta euskara bizkortu nahi izan duen mugimendua eta auzolana bestea, euskalgintza alegia”.

Donostiako Aieteko jauregian egin zen aurkezpena. Bertan, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendari Zigor Etxeburua eta Oroimen Historikoaren zuzendari Marina Bidasoro, Joan Mari Torrealdai, Xabier Mendiguren, Itziar Aizpurua, Joxe Manuel Odriozola, Sagrario Aleman, Kontseiluko idazkari nagusi. Paul Bilbaorekin batera euskalgintzako hainbat erakundeetako ordezkariak ere bertan egon ziren.



*Euskal Memoria Fundazioaren liburuaren aurkezpena, Aieten*

# JARDUNALDIA

**2013ko azaroaren 28, 29 eta 30a**

## **Jardunaldiak: Giza eskubideak XXI. mendean**

Donostia erre, suntsitu eta berreraikitzea erabaki zutenetik berrehun urte betetzearekin batera, Demagun elkarteak Giza eskubideak XXI. mendean jardunaldiak antolatu zituen UPV/EHUn eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean. Zenbait unibertsitateko 26 ikaslek parte hartu zuten,

Proiektuaren helburua da foro publiko birtualarekin jarraitzea, komunikaziorako teknologia berriak aprobetxatuta, indarkeria eza aktiboari eta bakeari buruzko eztabaida moderatu baten bidez.



*Demagun antolatutako jardunaldien parte-hartzaileak*

# AURKEZPENA

**2013ko abenduaren 23a**

## **Bake prozesua bultzatzeko Batzordea**

Euskal Herrian bake prozesua bultzatzeko, Foro Sozialak emandako hamabi gomendioak zabaltzeko eta kudeatzeko Batzordea aurkeztu zuten Bake Bideak eta Lokarrik, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean antolatutako ekitaldi batean.

Lokarriko koordinatzaile Paul Riosek eta Bake Bideako kide Peio Dufaok adierazi zutenenez, batzorde honen helburu nagusia da gomendioen inplementazioa kudeatzea bake prozesuan inplikaturako erakunde, alderdi eta gainerako aktoreekin batera.

Batzordearen kideen artean, besteak beste, honako hauek daude : Garbiñe Biurrun, epailea; Henri Duhalt, Pau eta Biarritzeko ohorezko magistratua; Nazario Oleaga, Bizkaiko abokatuen elkargoko dekanoa; eta Michel Tubiana, Frantziako Giza Eskubideetako Ligaren ohorezko lehendakaria.



*Batzordearen kideak, Aieten*